

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

R 19/2012 ebazpena
18/2010 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2012ko abenduaren 27an

Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada (lehendakaria), Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese (bokalak) kideekin, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari (1. ERAKUNDEA) erakundearen (aurrerantzean erakundea edo sozietatea) (IFZ ---) helbide fiskala 2004ko urriaren 7an eratu zenetik zein den zehazteko gatazka aurkeztu zion. Arbitraje Batzordearen aurrean tramitatu da, 18/2010 espediente zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko idazkari nagusi teknikoak 2010eko maiatzaren 25ean bidalitako idatziaren bidez planteatu zen. Arbitraje Batzorde honetan hurrengo egunean sartu zen. Idatzi horren bidez, 2010eko maiatzaren 25ean bertan Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiak Arbitraje Batzordearen aurrean ebazpen honen goiburuan agertzen den gaiari buruzko gatazka planteatzeko erabakia jakinarazi zen. Bizkaiko Foru Ogasunaren ohiturari jarraituz, idatzi horri Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen proposamena erantsi zaio, bai eta Ikuskapen Zerbitzuaren txostenak –horiek baititu oinarri–

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

eta aurretiko espedientea ere –horretatik ondorioztatzen dira, proposamen honek dioenez, erreklamazioaren oinarri diren aurrekariak eta arrazoibideak–.

2. Espedientetik aurrekari hauek ondorioztatzen dira:

- 2004ko urriaren 7an Bilbon eman zen 1. ERAKUNDEAren eraketa eskritura (bazkide diren 1. BAZKIDEAren –Andorrako printzerrian helbideratuta–, 2. BAZKIDEAren, 3. BAZKIDEAren, 4. BAZKIDEAren, 5. BAZKIDEAren, 6. BAZKIDEAren eta 7. BAZKIDEAren –guztiak daude Bizkaian helbideratuta– eta 2. ERAKUNDEA merkataritza konpainiaren – Bizkaian helbideratuta– artean sinatutako kapitalarekin). Administratzaile solidario izendatu dira 2. BAZKIDEA eta 7. BAZKIDEA. Erakundeak helbide sozial hau ezarri zuen: 1. UDALERRIA (Burgos).

- 2004ko urriaren 22an, sozietateak Burgosko Ogasun Ordezkaritzan zentsu aitortpena aurkeztu zuen, 036 eredua, IFZren behin-behineko eskabidea egiteko; bertan, 1. UDALERRIA (Burgos) agertzen zen helbide fiskal gisa. 2004ko azaroaren 8an, behin betiko eskabidea aurkeztu zuen, eta, bertan, helbide bera ageri zen.

- 2006ko otsailaren 3an, sozietateak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Berezian zentsu aitortpena aurkeztu zuen, 036 eredua, eta lursailen higiezinaren sustapen jardueraren hasiera jakinarazi zuen; jardueraren hasiera data gisa 2004ko urriaren 7a aitortu zuen. Halaber adierazi zuen jarduera ekonomikoa batez ere 1. UDALERRIAN (Burgos) kokatzen zela.

- Erakundeak, eratu zenetik, 2004tik, 2009ra arte, zerga aitortpenak Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Burgosen duen egoitzan aurkeztu ditu,

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

eta, bereziki, Sozietateei buruzko Zergaren kasuan, ondare sozietate izaeran (2006ra arte indarrean lurralde erkidean).

- 2009ko azaroaren 17an, erakundeak idatzi bat aurkeztu zion Bizkaiko Foru Ogasunari; horren bidez, helbide fiskala aldatzeko eskatu zuen, atzeraeraginezko ondorioekin, sozietatea eratu zen egunetik, 2. UDALERRIA (Bizkaia) helbidean ezartzeko; horrela, zuzendu egiten zuen helbide hori zehazteko egondako borondatez kanpoko gertakariaren gaineko hutsa.

- 2009ko abenduaren 17an, eginbide bat gauzatu zen (eransten den dokumentazio bakarra da erakundearen akten liburuaren kopia bat), sozietatearen administratzaileak, 7. BAZKIDEAK, eta aktuarioak sinatuta; bertan, 2. UDALERRIra (Bizkaia) eginiko bisitaren emaitzak islatzen dira, erakundearen helbide fiskala egiaztatzeko. Eginbide horretan, zergapekoaren administratzaileak egindako adierazpenak jasotzen dira:

o Enpresaren kontabilitatea, horren oinarri den dokumentazioa eta artxibo informatikoak 2. UDALERRIko (Bizkaia) helbideko lokalean egiten dira.

o Fakturak aurreko puntuan aipatutako lokalean bidaltzen eta jasotzen dira. Era berean, lokal honetan, zerga aitortzen kopiatu gordetzen da. Eginbidean esaten da zerga aitortzen Zerga Administrazioako Estatu Agentziak Bilbon duen ordezkariaren aurkeztu direla; hala ere, 2009ko azaroaren 17an aurkeztutako idatzian, sozietateko administratzaileak berak Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztutako idatzian esaten da zerga aitortzen Zerga Administrazioako Estatu Agentziak Burgosen duen ordezkariaren aurkeztu zirela. Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren txosten

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

guztietan ziurtatzen da aitortenak Burgosen aurkeztu zirela. Espedientean ez dira aitorten horiek jasotzen.

o Sozietateak bi banku kontu ditu irekita, biak 2. UDALERRIko (Bizkaia) banku sukurtsaletan. Kontu horietarako baimenduta dauden pertsonak sozietateko bi administratzaileak dira.

o Lokal hori 3. ERAKUNDEAren jabetzakoa da, eta bertako administratzaile da 7. BAZKIDEA, eta, aldi berean, bera ere 1. ERAKUNDEko bi administratzaileetako bat da. 3. ERAKUNDEAk bere erabilera 1. ERAKUNDEAri lagatzen dio.

o 1. ERAKUNDEA sozietatea kudeatzen duena 7. BAZKIDEA da.

o Administratzaileak bi dira: 7. BAZKIDEA (2. UDALERRIAN (Bizkaia) du helbidea) eta 2. BAZKIDEA (3. UDALERRIAN du helbidea, Bizkaian).

o Bazkide diren zazpi pertsona fisikoek Bizkaian dute helbidea. (Hala ere, eraketa eskrituran, batek helbidea Andorran duela jasotzen da).

o Bazkideen batzar nagusien bilerak 4. UDALERRIAN (Bizkaia) eta 2. UDALERRIAN (Bizkaia) egin dira. Horien kopia erantsi da. Hori da Bizkaiko Foru Aldundiak eginbide honi erantsi dion dokumentu bakarra. Horren ingurura, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 2011ko azaroaren 17ko idatzian dio "emandako liburuan bileretako aktak eskuz idatzi direla, eta ez direla zigilatu eta/edo eginbidetu, lehenengo orria izan ezik, lehenengo bileren oharren aurretik erregistrora aurkeztu

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

izanaren zigilua duela kontuan hartuta.” Bizkaiko Foru Aldundiak eta interesdunak berak ez dute gerora inolako oharrik egin.

- Eginbide hau da Bizkaiko Foru Aldundiak 2010eko urtarrilaren 20an helbide fiskala egiaztatzeko egindako jarduketei buruzko txostenaren oinarri bakarra; jarduketa horiek administratzailearen aurrean egin ziren, nahiz eta "aktuarioa aurretik abisatu gabe bertaratu zen". Bertan ondorioztatzen da 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala ez dagoela 1. UDALERRIAN (Burgos), 2. UDALERRIAN (Bizkaia) baino; izan ere, sozietatearen kudeaketa eta zuzendaritza eraginkorra 2. UDALERRIKO (Bizkaia) helbide horretan egin da.

- 2010eko urtarrilaren 20an, Bizkaiko Foru Aldundiko Zerga Ikuskapen Zerbitzuak txostena bidali zuen, zergapekoaren helbide fiskala zehazteko; bertan, aktuarioak ondorioztatu zuen

“1. ERAKUNDEA enpresaren (IFZ ----) helbide fiskala 2. UDALERRIAN, Bizkaian, dagoela, nahiz eta helbide soziala 1. UDALERRIAN (Burgos) dagoen, sozietatearen kudeaketa eta zuzendaritza eraginkorra 2. UDALERRIKO (Bizkaia) helbidean egin dela.

Txosten honetan proposatzen den helbide fiskalaren aldaketaren ondorioek 2004ko urriaren 7tik aurrera izatea eragina proposatzen da, aurreko paragrafoan aipatutako egoerak data horretatik aurrera gertatu baitira, sozietatea eratu zen egunetik aurrera, hain zuzen ere”.

- 2010eko otsailaren 10ean, Bizkaiko Foru Ogasunak, posta elektronikoaren bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zion, 1. ERAKUNDEAREN 1. UDALERRIKO (Burgos) helbide fiskal aitortua

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

2. UDALERRIko (Bizkaia) aldatzeko proposamena 2004ko urriaren 7an eratu zenetik izango dituela ondorioak. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez zion proposamen horri berariaz erantzun.

- 2010eko martxoan, erakundeak 036 eredia aurkeztu zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, eta bertan jakinarazi zion 1. UDALERRItik (Burgos) 2. UDALERRIra (Bizkaia) aldatuko zuela helbidea.

- 2010eko maiatzaren 26an, Foru Ogasunak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zion 2010eko maiatzaren 25ean Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako Ekonomia Itunean ezarritako Arbitraje Batzordean gatazka planteatzea erabaki zuela.

- 2011ko irailaren 27an, gatazka tramitera onartu zuen Arbitraje Batzordeak.

- 2011ko urriaren 20an, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zion Bizkaiko Foru Aldundiaren gatazka planteamendua eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari hilabeteko epea eman zion, alegazioak aurkezteko eta nahi beste proba eta dokumentazio proposatzeko eta aurkezteko. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegazioak 2011ko azaroaren 17an aurkeztu zituen.

4. Espedientea ikustera eman ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen, Zerga Koordinaziorako eta Laguntzarako zuzendariordearen 2012ko maiatzaren 22ko idatziaren bidez (hurrengo eguneko erregistroa du); bertan, argudioak errepikatzen ditu. Erakundeak, halaber, alegazioak aurkeztu zituen, 2012ko uztailaren 19an.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Lehenengo eta behin, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2011ko azaroaren 17an aurkeztutako idatzian proposatutako gatazka ez onartzeko eskabidea aztertu behar da. Esan den bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari 2010eko otsailaren 10ean helbidea aldatzeko proposamenaren berri eman zion. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez zion proposamen horri berriaz erantzun. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ulertzen du, abenduaren 28ko 170/2007 Errege Dekretuak onetsitako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2010eko apirilaren 10ean jasotako proposamenari isilbidez uko egin zaiola ulertu behar dela, eta, horrela, hilabeteko epea zenbatzen hasi (Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.2. artikulua). Bizkaiko Foru Aldundiak 2010eko maiatzaren 27ra arte gatazka planteatu ez duenez, planteamendua denboraz kanpo egin dela ulertzen da.

2. Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13. artikulua ezartzen du zerga administrazioen artean planteatzen diren gatazketan hasieran prozedura honi jarraituko zaiola:

“1. Gatazka onartua izateko, planteamendua egin aurretik aginpidetzat jotzen den zerga administrazioak ustez eskumen gabea denari inibizioa eskatu beharko dio, eta, horrela, bere eskumena erreklamatu, eta azken horrek errekerimenduari uko egin behar izan dio, bere eskumena berriaz edo isilbidez berretsiz.

Errekerimendu hori bi hilabeteko epean egingo da, gehienez, ustez eskumena duen administrazioak Ekonomia Itunean ezarritako lotura puntuak urratzen dituen egintzaren edo egintzen berri duen egunetik aurrera zenbatzen hasita.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

Errekerimendu idatzian garbi zehaztuko dira gatazkaren helburu diren egintzak, bai eta zuzenbideko oinarriak ere.

Administrazio bat ere eskuduna ez bada, administrazio batek bestearen aldeko eskumen-gabetasun deklarazioa egin beharko du, eta horren erabakia inhibitzeko.

Zerga administrazio bat bere eskumenean isilbidez berresten dela ulertzen da, inhibitzeko errekerimendua jaso eta hilabeteko epean erantzuten ez dionean. Era berean, zerga administrazio bat eskuduna ez dela ulertuko da, beste administrazioaren eskumengabetasunaren deklarazioa kontuan hartzen ez duenean.

Zergadunen helbideratzea dela eta planteatutako desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikularen 9. atalak aipatzen duen bi hilabeteko epea igaro ondoren, administrazio biak adostasunen batera heldu ez badira, ez da beharrezkoa izango gatazka planteatu ahal izateko atal honen lehenengo paragrafoak aipatzen duen eskumen-gabetasun errekerimendua edo deklarazioa egitea.

2. Gatazkak hilabeteko epean sustatuko dira, aurreko atalean aipatzen den berriazko edo isilbidezko berrespena egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita, Arbitraje Batzordeko buruari zuzendutako idatziaren bidez.”

Beste alde batetik, Ekonomia Itunaren 43. artikularen bederatzigarren atalak zera ezartzen du:

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

“Zergadunaren helbide aldaketa tartean den edozein administrazioiok sustatu ahalko du. Administrazio horrek bere proposamena bidaliko dio, beharrezko aurrekariekin, beste administrazioari, bi hilabeteko epean helbide aldaketaren gainean eta ondorioak atzera egiten diren egunaren gainean epaia emateko Administrazio horrek proposamena baieztatuz erantzuten badu, eskumena duen administrazioak zergadunari jakinaraziko dio.

Adostasunik egon ezean, prozedurari jarraitu ahal izango zaio, artikuluko honen seigarren atalean ezarritako eran”.

Bederatzigarren atal hau Ekonomia Itunaren 43. artikuluko seigarren atalarekin lotzen denez, edukia aldatu beharko litzateke:

“Zergadunen helbideratzearen gainean administrazioen artean dauden desadostasunak ebatzi egingo ditu, aurretik horiek entzunda, Ekonomia Itun honen III. kapituluaren III. sekzioan arautzen den Arbitraje Batzordeak.”

Garrantzitsua da azpimarratzea Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren eta seigarren ataletan xedatzen dena eta Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bosgarren eta seigarren ataletan xedatzen dena antzekoa dela, abenduaren 26ko 28/1990 Legeak onetsita, uztailaren 15eko 25/2003 Legeak emandako idazkeran. Kolazionatu egin ditugu; izan ere, horien interpretazioari buruz edo, hobe esanda, garatzen dituzten arauzko artikuluen interpretazioari buruz Auzitegi Gorenak eman du epaia.

Bada, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 14. artikuluko, martxoaren 24ko 353/2006 Errege Dekretuak onetsitakoak, ezartzen du zerga

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

administrazioen artean planteatzen diren gatazketan hasieran prozedura honi jarraituko zaiola:

“1. Gatazka onartua izateko, planteamendua egin aurretik aginpidetzat jotzen den zerga administrazioak ustez eskumen gabea denari inhibizioa eskatu beharko dio, eta, horrela, bere eskumena erreklamatu, eta azken horrek errekerimenduari uko egin behar izan dio, bere eskumena berariaz edo isilbidez berretsiz.

Errekerimendu hori bi hilabeteko epean egingo da, gehienez, eskuduntzat jotzen den administrazioak bere ustez Ekonomia Itunean ezarritako lotura puntuak urratzen dituen egintzaren edo egintzen berri duen egunetik aurrera zenbatzen hasita. Errekerimendu idatzian garbi zehaztuko dira gatazkaren helburu diren egintzak edo eraginpeko xedapenak, bai eta zuzenbideko oinarriak ere. Administrazio bat ere eskuduna ez bada, administrazio batek bestearen aldeko eskumen-gabetasun deklarazioa egin beharko du, eta horren erabakia inhibitzeko. Zerga administrazio bat bere eskuduntzan isilbidez berresten dela ulertzen da, inhibitzeko errekerimendua jaso eta hogeita hamar egun balioduneko epean erantzuten ez dionean. Era berean, zerga administrazio bat eskuduna ez dela ulertuko da, beste administrazioaren eskumengabetasunaren deklarazioa kontuan hartzen ez duenean. Ekonomia Itunaren 43. artikuluko 5. atalean azaltzen diren kasuetan, atal horrek xedatzen duen bi hilabeteko epea igaro ondoren, administrazio biak adostasunen batera heldu ez badira, ez da beharrezkoa izango atal honen lehenengo paragrafoak aipatzen duen eskumen-gabetasun errekerimendua edo deklarazioa egitea gatazka planteatu ahal izateko.

2. Gatazkak hamabost egun balioduneko epean sustatuko dira, aurreko atalean aipatzen den berariazko edo isilbidezko berrespina egiten den

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

egunetik aurrera zenbatzen hasita, Arbitraje Batzordeko buruari zuzendutako idatziaren bidez...".

Beraz, nabarmena da Arbitraje Batzorde honen 13.1. artikuluan eta Itunaren Arbitraje Batzordearen 14.1. artikuluan xedatutakoa antzekoa dela. Desberdintasun logikoa eta garrantzirik gabea dago, legezko artikuluko desberdinerara bidaltzen duena: lehenengoan, Itunari buruzko Legearen 43. artikuluko bederatzigarren atalera; bigarrenean, Itunari buruzko Legearen artikuluko 5. atalera. Beste desberdintasun bat dago, ondorio hauetarako garrantzirik gabea: kasu batean hilabeteko epea ezartzen da, eta, bestean, hamabost egun baliodunekoa. Desberdintasun horiez aparte, gainerakoa berdina da, eta, horrela bada, kasu honetan Auzitegi Gorenak 2011ko irailaren 22ko epaiaren bidez emandako jurisprudentzia doktrina aplikatu behar dugu, zera deklaritzen duena: helbide aldaketaren proposamenari buruzko erantzuna bi hilabeteko epekan kanpora egin izanagatiko hutsaltasuna. Baina, batez ere, Auzitegi Gorenaren 2012ko ekainaren 7ko epaia (seigarren zuzenbideko oinarria) aplikatu behar da; hementxe epaiak dakarrena:

“Arbitraje Batzordearen iritziz, gatazka egoera guztietan, Araudiaren 14.2. artikulua berariaz hala aginduta, gatazkak hamabost egun balioduneko epean sustatu behar dira, errekerimendua edo proposamena berariaz gaitzesten edo isilbidez ukatzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, 14.2. artikulua gatazka positiboa jartzeko epeari baino ez dio erreferentzia egiten; izan ere, epeak zenbatzea aipatzen du eskumena berariaz edo isilbidez berresten denetik aurrera zenbatzen hasita, errekerimendua jasotzen duen administrazioak berariaz erantzun dezakeelako inhibituz edo eskumenari eutsiz edo isilbidez jardun dezakeelako eta errekerimenduari erantzunik ez eman; kasu horretan, 30

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

eguneko epea igarota errekerimenduari uko egin zaiola ulertzen da, eta, beraz, zabalik geratzen da gatazkaren planteamendua egiteko bidea.

Hori kontuan hartuta, ez du zentzurik esateak ezarritako 15 eguneko epea aplikatu behar denik helbide aldaketaren kasuetan (sic) eta preklusio izaera duenik; izan ere, 43.5. artikulua adiskidetasunezko prozedura ezartzen du eta, hori behar bezala amaitzen ez bada, Arbitraje Batzordera bideratzen da, pertsona fisiko edo juridiko bat non helbideratuta dagoen erabaki dezan. Esan beharra dago, baina, Araudiak bakarrik ezartzen duela errekerimendua jaso duen administrazioak erantzuteko duen bi hilabeteko epea igaro ondoren ez dela beharrezkoa gatazka planteatu ahal izateko beste tramiterik; beraz, helbidea aldatzeko eskaerak berak irekitzen du bidea, baldin eta ukatua bada, Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka jartzeko.

Beste alde batetik, ondorio horretara heltzen da gatazka positiboen kasuen egoera eta zergadunen helbideari buruzko gatazkena oso desberdina delako. Lehenengo kasuan, administrazio baten ustez beste administrazio bat ez dagozkion zergak aplikatzeko eskumena baliatzen ari da, eta bere ustez bere eskumenari kalte egiten dion egintzaren edo xedapenaren aurrean erreakzionatzen du. Logikoaenez ulertzen da aurretiko errekerimendua egiteko eta errekerimendua berariaz gaitzetsi edo isilbidez ukatuz gero sortutako gatazka jartzeko epeak preklusio izaera duela; beraz, ez betetzeak akzio prozesala dakar, epe hori Justizia Auzitegietan errekurtsioak aurkezteko ezarritako epeekin alderatu behar da. Bigarren kasuan, helbide aldaketaren kasuan, ez da abiatzen administrazio batek aurretik izan duen jarduketa batetik, alegia ez dago administrazio bat beste administrazio bati bere eskumena erreklamatzeko; desakordio bat dago zergadunen helbideratzeari dagokionez, eta

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

adiskidetasunez konpontzeko ahalegina egiten da, eta desadostasun egoeran baino ez da jotzen Arbitraje Batzordera desakordioa ebazteko.

Dagoeneko eman dugu bizileku aldaketaren proposamenari buruzko erantzuna bi hilabeteko epetik kanpo eman izanaren hutsaltasunari buruzko epaia.

Irtenbide hori aplikagarritzat jo behar da gatazka jartzeko epearentzat; beraz, ez dago eragozpenik helbide aldaketaren proposamenari uko egiten dion epez kanpoko ebazpen baten aurrean Arbitraje Batzordera jo ahal izateko, hamabost eguneko epean, hartutako ezespren epaiaren berri izaten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Era berean, ez dago eragozpenik ezarritako epean erantzunik jaso ez bada, aldaketa sustatu duen administrazioak hala erabakitzen duenean, aldaketa proposamena isilbidean ezetsi dela ulertzeko eta gatazka formalki sustatzeko, isiltasun negatiboaren araudia aplikatuz, eta aurka ezin da argudiatu zergapekoarekiko segurtasun juridikorik eza; izan ere, atzerapenagatiko ondorioek ebazpenean argudiatuta egon behar dute, hala badagokio, administrazio eskudunak egiten duen likidazioari dagokionez".

3. Argudiatzeko hari hau 2012ko irailaren 28ko R 11/2012 Ebazpenean erabili genuen, 15/2009 espedientean emandakoan, eta horrek ematen digu berriro Zerga Administrazioko Estatu Agentziak planteatutako epez kanpoko izaeragatiko alegazioari soluzioa emateko aukera. Egia da gatazka aurkeztu dela hilabete baino gehiago igaro ondoren helbide aldaketa isilbidez ukatu zenetik. Gertatzen dena da, Auzitegi Gorenaren 2012ko ekainaren 7ko epaitik ondorioztatzen denez, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13. artikuluko 2. atalean xedatutakoa ez dela aplikatzen helbide aldaketaren

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

kasuetan eta, gainera, ez da eperik ezarri 2. atal horretan ezarritako epearen orde. Jakina, eperik ez badago, ezin da ulertu denboraren prozedura betekizuna bete ez denik. 1. ERAKUNDEA kexa liteke gatazkaren planteamenduan egon den atzerapenagatik, baina Auzitegi Gorenaren 2011ko irailaren 22ko epaitik ondorioztatzen den bezala, atzerapen horrek eragingarritasunik izateko, lehenengo eta behin, erakundeari defentsa gabezia eragin behar izan zaio. Baina ez da halakorik gertatu, gatazka honen tramitazioan zehar Arbitraje Batzorde honek horren berri eman baitio, nahi beste alegazio aurkezteko, eta hala egin du, bai epez kanpoko alegazioari dagokionez, bai gai nagusiarri dagokionez. Epez kanpo aurkeztu izanari dagokionez, zenbait argudio ematen ditu kontra; horietako bat Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen 13. artikulutik "argi ondorioztatzen dela bi hilabeteko epea erabat prozesala dela errekerimendua edo eskumengabetasun deklarazioa saihesteko, baina ez du inolaz ere eragozten administrazio interesdunetako batek edo zergadunak berak gatazka jartzeko". Azken batean, kontua da, batetik, ez zaiola defentsa gabeziarik eragin, eta, bestetik, gatazkaren planteamendua epez kanpoko izan ez dela aitortu dela.

4. Gatazka epez kanpo planteatu izanari uko egin zaiola kontuan hartuta, gaia bera sakonean aztertzea baino ez dugu. Eta, hori horrela, gogora ekarri behar dugu desadostasuna, azken batean, hauxe dela: Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, helbide aldaketa bidezkoa da 2004ko urriaren 7tik; Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren hitzetan, ordea, helbide aldaketa ezin da atzera eragin, erakunde interesdunak modu boluntarioan egin baitzuen, edo, modu subsidiarioan, sozietatearen helbide fiskala lurralde erkide batetik foru lurralde batera aldatzea onargarritzat joz gero, aitortzea aldaketa horrek ezin dituela ondorioak izan 2010eko martxoaren 6a baino lehen, orduan aldatu baitzuen sozietateak bere helbide soziala Bizkaira, eta orduan jakinarazi baitzion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari helbide sozialaren eta fiskalaren aldaketa.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

Bildu ditzagun, beraz, administrazio biek eta erakunde interesdunak beren asmoen alde aurkeztu dituzten gertakariak eta frogak.

5. 7. BAZKIDEAK sinatutako espediente idatzian (Bizkaiko Foru Aldundian 2009ko azaroaren 17ko erregistro sarrera du) zera adierazten da: sozietatearen bi administratzaileak daude Bizkaian helbideratuta, eraketatik bertatik; eratu zenetik lursailen salerosketara dedikatzen da, eta ez du ez langile egiturarik ez lokal egiturarik horretara bideratuta; Burgosko Zerga Administrazioko Estatu Agentzian aurkeztu ditu zerga aitorten guztiak; eratu zenetik, kontabilitateko kontuak, banku eragiketen kontratazioa, Burgosko Zerga Administrazioko Estatu Agentzian egin diren aitortzen aurkezpena, lursailen salerosketaren eskritura gehien ematea 2. UDALERRIAN (Bizkaia) administratzaileak duen lokaletik egin dira; Burgosko Zerga Administrazioko Estatu Agentzia erakundeari eginiko ikuskaritza eta aurrekarien analisia direla eta, administratzaileak ondorioztatu du erakundearen helbide fiskala, eratu zenetik, 2. UDALERRIAN (Bizkaia) egon dela eta, beraz, aitortutako helbide fiskala aldatzeko eskatu duela, atzeraeraginezko ondorioekin.

6. Espedientean egiaztatze eta ikerketa jarduketa hasi delako jakinarazpena jasotzen da, 2009ko maiatzaren 4koa, 2009ko maiatzaren 14an jakinarazia, Sozietateei buruzko Zergaren ingurukoa, 2006ko ekitaldiari dagokiona, eta horren helburua da 1. ERAKUNDEAREN ondasun sozietatearen araudira nola egokitzen den kontrolatzea. Jakinarazpen hori Gaztela eta Leongo Ordezkaritza Berezitik etorri zen, eta, bertan, erakundearen helbidea 1. UDALERRIAN (Burgos) zegoela jasotzen zen. Bertan aipatzen da erakundearen legezko ordezkaria Zerga Bulegoetan agertu behar dela 2009ko maiatzaren 27an. Gero, jarduketa horiek 2008ko ekitaldiko zerga itzultzeari buruzko beste batzuekin metatu ziren eta zerga kontzeptuari 2006ko ekitaldiko kapital higigarrien etekinen gaineko konturako atxikipenak gehitu zitzaizkion. Maiatzaren 27an erakundeko ordezkaria azaldu zen, eta dagokion eginbidea eman zen; bertan,

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

erakundearen helbide gisa 1. UDALERRIkoa (Burgos) agertzen da, eta ez da horren gaineko oharrik egin.

Halaber, 2009ko maiatzaren 26ko ordezkari-tza eredu-a jasotzen da, 7. BAZKIDEAK emandakoa, 1. ERAKUNDEko lege-zko ordezkaria den aldetik; bertan, erakundearen helbide gisa 1. UDALERRIkoa (Burgos) agertzen da, 1. IZEN-ABIZENAK jaunaren alde.

Halaber, desadostasun akta jasotzen da, 2010eko martxoaren 4koa, BEZari buruzkoa, 2006ko ekitaldikoa, Burgosen gauzatua; bertan, helbide gisa 1. UDALERRIkoa (Burgos) agertzen da. Era berean, egun bereko desadostasun akta jasotzen da, kapital higigarriaren konturako atxikipenei/sarrerei buruzkoa, 2006ko ekitaldikoa, eta bertan ere 1. UDALERRIA (Burgos) agertzen da helbide gisa.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak berak ziurtatzen duen bezala, Gaztela eta Leongo Ordezkaritza Bereziak bideratutako 2010eko apirilaren 15eko txostenean, zehatz esateko, 2010eko martxoaren 23an adierazten du erakunde-ko ordezkariak, 2010eko martxoaren 4ko akten ondoriozko likidazio proposamenei egindako alegazioak direla-eta, “Bizkaiko Foru Ogasunak eskatutako helbide aldaketaren espediente baten berri izan duela”, eta “horrek jardueren baliogabetasuna ekar dezakeela, Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako Ekonomia Ituna aplikatu beharko litzatekeelako lehentasunez (...). Erakundeak ulertzen du erakundearen helbidea Bizkaian dagoela; izan ere, bertatik egiten dituzte negozioen kudeaketa eta zuzendaritza, 2009ko azaroaren 18an hasitako (sic) eginbidetik ondorioztatzen den bezala”.

Garrantzitsua da azpimarratzea 2010eko martxoaren 4ko data duten aktei alegazioak aurkeztu aurretik, erakundeak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari helbide aldaketaren 036 eredu-a aurkeztu ziola, Gaztela eta Leongo

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

Ordezkaritza Bereziaren 2010eko apirilaren 15eko txostenean, Bizkaiko Foru Aldundiak proposatutako helbide fiskalaren aldaketaren jatorriari buruzkoan, adierazten den bezala, eta 2010eko maiatzaren 17ko txostenean agertzen den bezala. Era berean, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren hasierako alegazioetan, 2011ko azaroaren 17koetan, halaber, helbide aldaketaren eredu horri egiten zaio erreferentzia, 2010eko martxokoari. Bi kasutan esaten da martxoaren 16an aurkeztu zela; bestean 12an aurkeztu zela. Espedientean ez dago bere kopiarik, baina datu horri ez dio kontra egiten ez Bizkaiko Foru Aldundiak, ez erakunde interesdunak, beraz, egiazkotzat jo behar dugu. Ez du garrantzirik, bestalde, aurkezpena martxoaren 12an edo 16an izatea; garrantzitsuena da 2010eko martxoaren 4aren (akten eguna) eta 2010eko martxoaren 23aren (akten alegazioak aurkeztu ziren eguna) artean aurkeztu zela.

7. Garrantzitsua da azpimarratzea Gaztela eta Leongo Ordezkaritza Orokorren 2010eko apirilaren 15eko txostenean, Bizkaiko Foru Aldundiak proposatutako helbide fiskalaren aldaketaren bidezkoasunari buruzkoan, zera esaten dela: “2004ko urriaren 22tik, 036 zentsu ereduak aurkezten denetik, ereduan bertan eta zerga aitorten guztietan agertzen dela helbide fiskal gisa 1. UDALERRIA (Burgos) (...), aurrekoari gehitu behar zaio, likidazioaren erabakiaren 13. orrian jasotzen den bezala, zergadunak aurkeztutako autolikidazio guztietan (Sozietateei buruzko zerga, BEZa, atxikipenak, etab.), helbide fiskal gisa Burgos probintziakoa ezarri dela. Aldi berean, jasotako zein bidalitako fakturretan helbide hori agertzen da, eta ez alegatzen dena”. Txosten horretan agertzen den beste datu garrantzitsu bat da “erakundearen urteko kontuak Burgosko Merkataritza Erregistroan ezarri direla”.

Ikuskaritza bertaratzeagatiko “ustekabeari” buruz ere ziurtatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak helbide aldaketari hasiera ematea erakundeak berak sustatu zuela 2009ko azaroaren 17ko idatziaren bidez. Era berean, deigarria da ez dela

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

eransten 2. UDALERRIko (Bizkaia) lokala okupatzen duen sozietatea (3. ERAKUNDEA) 1. ERAKUNDEAri laga dionik erakusten duen dokumenturik. Gainera, zera dio: administratzaileak egindako adierazpenek ez dute oinarri frogagarririk, eta hori oso garrantzitsua da, ondorioak bost urte atzera eragin nahi direla kontuan hartuta. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du frogarik aurkeztu, eginbidea eta akten liburuaren kopia kenduta.

8. Garrantzitsua da, halaber, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Burgosko Ordezkaritzak bideratutako 2010eko maiatzaren 17ko txostenean, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskaeraren bidez helbide fiskala aldatzeko proposamenari erantzuteko, zera adierazten dela: “zerga egoeraren gainean jakinarazten joan diren aldaketak, eratu zenetik, 036 zentsu ereduaren bidez aurkezten joan dira, eta beti agertu izan da 1. UDALERRIA (Burgos) helbide fiskal gisa. Horrela, bada, 2006ko otsailaren 3an zerga datuen, jarduera motaren, BEZaren eta konturako ordainketen inguruko aldaketa bat egin zen. Gerora, 2007ko maiatzaren 10ean, 036 eredia aurkeztu zen, enpresa handiko kalifikazioa eskatzeko, eta antzeko eredia aurkeztu zen 2008ko urtarrilaren 16an, aurreko kalifikazioa berriro aldatzeko”. Enpresa Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergan egon da altan, etengabe, sortu zenetik, 1. UDALERRIAN (Burgos). 2008ko ekainaren 20an, idatzia aurkeztu zen, 850 eredia baliogabetzeko eskatzeko; izan ere, ez zen gainditu negozioen milioi bat euroko zifra, eta, beraz, Jarduera Ekonomikoei buruzko Zerga ordaintzetik salbuetsita zegoen. 2006ko abenduaren 27an, 2005eko ekitaldiko BEZaren zerga kontzeptuagatik egiaztapen mugatuko prozeduraren hasieraren dokumentazio eta jakinarazpenaren errekerimendua bidali zen; errekerimendu hori 1. UDALERRIko helbide aitortura bidali zen, eta 2007ko urtarrilaren 24an agertu zen erakundea, eskumen nahikoa zeukan pertsonaren bidez. (Erakundeak ez du puntu horietako bat ere ukatu, 2012ko uztailaren 10eko alegazioen idatzian).

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

Azkenik, 2010eko maiatzaren 17ko txosten horretan adierazten da 1. UDALERRIko (Burgos) helbidea 4. ERAKUNDEAren instalazioetan zegoela, eta bertako administratzailea 5. BAZKIDEA zela, 1. ERAKUNDEA sozietateko ahalduna, eta, gainera, 4. BAZKIDEAekin ezkondata zegoela, eta biak zirela sozietateko bazkide. Erakundeak alegazioen 2012ko ekainaren 10eko idatzian aitortzen du 1. ERAKUNDEAK aitortutako helbidean beste enpresa horrena dagoela, nahiz eta, ziurtatzen duen bezala, "erreferentziazko poligonoan benetan helbideratutakoa den". Aipatzen ari garen 2010eko maiatzaren 17ko txostenean bat etortze horietatik ateratzen diren ondorioak hauek dira: "oraingoan helbide sozial eta fiskal gisa ezarri nahi den antzeko egoeran gaude, izan ere, jakinarazpenean 2. UDALERRIko (Bizkaia) helbidea 3. ERAKUNDEAri dagokio, 7. BAZKIDEA administratzaile duenari, erabilera 1. ERAKUNDEAri lagatzen diola, Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenak dioen bezala".

9. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egindako alegazioei erantzuteko, erakundeak zenbait gauza aipatzen ditu, eta garrantzitsuenak hauek dira: helbide aldaketaren espedientea hasteko motiboak ez direla garrantzitsuak, benetan garrantzia duena egitea bidezkoa den ala ez dela; ez duela inolako garrantzirik higiezin eragiketak bakarrik lurralde erkidean egitea; 1. ERAKUNDEAK emandako fakturretan lurralde erkideko helbide fiskala jartzeak – eta ez 2. UDALERRIkoa (Bizkaia)– ez garamatzala aldeko ondorioak ateratzera Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren tesiarentzat, izan ere jakina da hori agertu behar dela hasieran aitortutako helbide fiskalaren aldaketa onartzen ez bada; Burgosko merkataritza erregistroan kontuak gordailutzeak ez daukala Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eman nahi dion besteko garrantzia, izan ere erregistroarekin lotutako obligazioak helbide sozialaren araberakoak dira eta ez helbide fiskalaren araberakoak. Gainerako baieztapenak orokorragoak dira, eta desadostasuna agertzen dute Zerga Administrazioko

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

Estatu Agentziak eginiko balioespenen aurrean, espedientean dauden dokumentuei dagokienez.

10. Ituneko 43.lau b) artikulua ezarritakoarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratutzat joko dira "bertan helbide soziala duten eta Sozietateei buruzko Zergaren pean dauden pertsona juridiko eta gainerako erakundeak, baldin eta, bertan, administrazio kudeaketa eta beren negozioen zuzendaritza behar bezala zentralizatuta badaude. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskal Autonomia Erkidegoan egiten denean. Irizpide horien arabera helbidearen lekua ezarri ezin den kasuetan, ibilgetuaren balio handiena dagoen lekua hartuko da kontuan".

11. Bada, espedientean dauden datuen balioespen bateratuak ondorioztatzera garamatza administrazio kudeaketa eta zuzendaritza eraginkorra lurralde erkidean garatzen dela, ez foru lurraldean. Erakundearen jarrerak berak babesten du ondorio hori; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiari helbide aldaketarekin hasteko eginiko "agindua" Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erakundearen aurka ikuskaritzako jarduera zehatz batzuk hasi ondoren gertatu zen, eta, gainera, interesdunak berak 036 eredu aurkeztu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentzian, helbide aldaketarena, 2010eko martxoan, emandako akten eta horien aurrean aurkezten diren alegazioen arteko epean. 2009ko azaroaren 14a baino lehen, ez da autoetan eragozpenik ageri helbide fiskala 1. UDALERRIkoa (Burgos) dela pentsatzeko. Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren 2010eko apirilaren 15eko eta 2010eko maiatzaren 17ko txostenek deklarazioak, jakinarazpenak, eta abar dituzte, eta horietatik ondorioztatzen da sekula ez dela zalantzan jarri zerga kontuetan Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin jarri behar dela harremanetan, eta ez Bizkaiko Foru Aldundiarekin. Onartu egiten du, beraz, hori baita ulertzen dena, bere helbide fiskala lurralde erkidean dagoela eta ez foru lurraldean, helbidearen aitortzean usteko hutsa egiaztatzen duen gertakaririk ez

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Ukitutako administrazioak</i> | | <i>Kontzeptua</i> |
|--------------------|-----------------|------------|----------------------------------|-------------------------|---|
| 18/2010 | R19/2012 | 2012/12/27 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | Pertsona juridiko baten egoitza fiskala |

dagoela kontuan hartuta, kontrakoa adierazten duten jardueren errepikapena aintzat hartuta.

Hori kontuan hartuta, Arbitraje Batzordeak hauxe erabaki du:

ERABAKIA

1. ERAKUNDEAK (IFZ: ----) helbide fiskala Burgoseko 1. UDALERRIAN izan duela, 2004ko urriaren 7an eratu zenetik, behintzat 2010eko martxoan helbide aldaketa berariaz jakinarazi arte.